

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AIARAKO UDALA

#### **Behin betiko onespena ematea udalak eskaintzen ez dituen musika eta dantza jardueretarako laguntzak arautzen dituen ordenantzaren aldaketari**

Aiarako Udaltzaren, 2019ko abenduaren 19an egindako ohiko osoko bilkuran, hasierako onespena eman zion udalak eskaintzen ez dituen musika eta dantza jardueretarako laguntzak arautzen dituen ordenantzari.

Agiria jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onetsizat jotzen da. Hona hemen:

#### **Udalak eskaintzen ez dituen musika eta dantza jardueretara doazenei laguntzak ematea arautzen duen ordenantza**

##### **Lehenengoa. Araudiaren xedea**

Araudi honen xedea da familiei emango zaizkien urteko dirulaguntzak arautzea, zeinak honetarako izango baitira: Aiarako udalerrian eskaintzen ez diren musika eta dantza jardueretan (sartuta daude Aiarako udalerrian jarduera hori eskaini bai, baina dirulaguntza eskaeran jasotako mailan eskaintzen ez direnak) izena emateagatik Aiarako udalerrian erroldatutako adingabeek egindako gastuak estaltzeko, baldin eta jarduera horiek Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eskaintzen badituzte (zuzenean udalek edo haien mendeko erakundeek eskainitako jarduerak).

##### **Bigarrena. Funtsezko printzipioak**

1. Ordenantza honen bidez araututako dirulaguntzak emateko, ezinbestekoa izango da ebazpena ematen den unean aurrekontuan dirua baliagarri egotea, bai eta kreditu egokia eta nahikoa egotea ere.
2. Dirulaguntzak borondatezkoak eta aldi baterakoak izango dira.
3. Aiarako Udalak lehendik dirulaguntza eman izanak ez die inolako eskubiderik ematen eskatzaileei, eta ez da irizpide erabakigarria izango dirulaguntza berriro emateko orduan.
4. Dirulaguntza emateak ez dakar berekin inolako kontratu harremanik, ez zibilik, ez lanekorik, ez administraziokorik, Aiarako Udalaren eta dirulaguntza jasotzen duen pertsonaren edo erakundearen artean.
5. Ezingo da eskatu emandako dirulaguntzaren zenbatekoa handitzea, salbu eta aparteko inguruabarrak direla-eta horretarako arrazoiak badaude eta udalak aldeko txosten arrazoitua ematen badu.
6. Udal araudi honen aplikazio eremutik kanpo daude ordenantza honen xedearekin zerkusi zuzena ez duten laguntzak, bai eta indarreko araudia betez Aiarako Udalak ematen dituen prestazioak ere.
7. Ordenantza honen ondorioetarako, dirulaguntza hau da: udaltzaren pertsona fisikoen alde egiten duen diru esleipen oro, onuradunen kontraprestazio zuzenik gabe.
8. Oinarri hauen arabera emandako laguntzak dirulaguntzak izango dira eta, ondorioz, honakoak aplikatuko zaizkie: otsailaren 7ko 3/1997 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntza eta Transferentziena; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzena; 1955eko ekainaren 17ko Toki Erakundearen Zerbitzuen Arautegia; eta egoki den legeria osagarria.

**Hirugarrena. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak**

Ordenantza honen ondorioetarako, hauek dira diruz lagundu daitezkeen jarduerak:

- Musika.
- Dantza.

Dirulaguntza eskuratu ahal izateko, derrigorrezkoa izango da Aiarako Udalak jarduera horiek ez eskaintzea (ez eta udalerrian bertan kultura elkarteren batek) eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalek edo haien mendeko erakunderen batek ematea, edo, udalerrian ematen badira ere, dirulaguntza eskatzen den jarduera beste maila batekoa izatea.

Kirol jarduerak ez dira inoiz diruz lagunduko.

**Laugarrena. Onuradunak eta eskatzaileak**

Diruz lagunduko den jarduera hasi aurretik, gutxienez sei hilabetez segidan Aiarako udalerrian erroldatuta daudenak izango dira onuradunak.

Hala ere, diruz lagundu beharreko jarduera egingo duen adingabearen aitak, amak edo legezko tutoreak eskatu behar du laguntza eta betekizun hauek bete beharko ditu:

a) Diruz lagunduko den jarduera hasi aurretik, gutxienez sei hilabetez segidan Aiarako udalerrian erroldatuta egotea.

b) Foru Ogasunarekiko zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

c) Aiarako Udalaren diru kutxetan egin beharreko ordainketak egunean izatea.

Ez dira izango ez dirulaguntzaren onuradun ez eskatzaile Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan jasotako egoeraren batean dauden pertsonak.

**Bosgarrena. Onuradunen eta eskatzaileen betebeharrak**

Hauek dira onuradunen betebeharrak:

a) Diruz lagundu daitezkeen jarduerara joatea. Dirulaguntza eskuratu ahal izateko, gutxienez eskolen ehuneko 80ra joan behar da; egiaztagirietan, bertaratze orokorrari buruzko informazioa agertuko da.

Hauek dira eskatzaileen betebeharrak:

a) Aiarako Udalari betekizunak eta baldintzak betetzen direla justifikatzea. Halaber, egiaztatu egingo da diruz lagundu daitezkeen jardueran izandako bertaratzea.

b) Dirulaguntza honen esparruan egin daitezkeen egiaztapen jarduerak onartzea, eta eskatzen zaion informazioa ematea.

c) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza edo diru sarreraren bat lortuz gero, ahalik eta azkarren jakinarazi behar diote Aiarako Udalari.

d) Jasotako funtsak erabili direla frogatzen duten agiriak edukitzea, zeren eta egiaztatuak eta kontrolatuak izan baitaitezke.

e) Dirulaguntza itzuli behar izateko inguruabarretako bat gertatuz gero, jasotako kopurua itzultzea.

Eskaeran ezarri beharreko daturen edo agiriren bat ematen ez bada edo datu faltsua ematen bada, eskaera baliogabetuko da, eta horrez gainera eskatzaileari erantzukizuna eskatu ahal izango zaio.

**Seigarrena. Bateragarritasuna**

Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira xede bererako jaso daitezkeen beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin. Horregatik, eskaera aurkeztean adierazi behar da xede bererako beste laguntza edo dirulaguntzarik eskatu den ala ez. Eskatu bada, honako hauek aurkeztu behar dira: eskaeraren fotokopia konpultsatua eta dirulaguntza onartzen (zenbatekoa adierazita) edo ukatzen duen ebazpenarena; ebazpena eman ez bada, eskatzailea haren zain dagoelako adierazpena.

Edonola ere, ezingo da gainfinantzaketarik gertatu, hots, onuradunak dirulaguntzen bidez xede bererako jasotzen duen guztizko kopuruak ezin du izan jardueraren gastua baino gehiago.

**Zazpigarrena. Aurrekontu zuzkidura**

Ordenantza honen babesean ematen diren dirulaguntzen zenbateko osoak ezin du gainditu Udalbatzak urtero onartzen duen aurrekontu partida.

Ordenantza honetan arautzen diren dirulaguntzak emango dira baldin eta horretarako kreditu egokia eta nahikoa badago.

**Zortzigarrena. Laguntzen zenbatekoa eta dirulaguntzaren muga**

Hauxe izango da, gehienez, dirulaguntzaren zenbatekoa: Udalak edo haren mendeko erakundeak udalerrri horretan erroldatutakoei aplikatzen dizkien tarifen eta onuradunari aplikatzen dizkion tarifen arteko aldearen ehuneko 100, kalterik egin gabe aurreko artikuluan ezarritakoari.

**Bederatzigarrena. Eskaerak, agiriak eta epea**

Udalak iragarkia argitaratuko du urtero, interesdunek dirulaguntza eskatu ahal izateko. Iragarki horretan, aurrekontuetan eskaerei erantzuteko onartutako gehieneko aurrekontu partida ezarriko da.

Horrez gain, eskaerak aurkezteko epea ere adieraziko da.

Eskaerak eta artikulua honetan eskatutako agiriak udaletxean aurkeztu behar dira, inprimaki normalizatuan, ekainaren 15etik uztailaren 15era (urtero data horietan egin behar da, salbu eta dagokion urteko iragarkian beste epe bat ezartzen denean). Urteko eskaeran bakar-bakarrik sartu ahal izango dira eskaeraren aurreko urteko irailetik uneko urteko ekainera (bi hil horiek barne) egindako jarduerak.

Aurkeztutako agirietan irregulartasun edo hutsen bat baldin badago, hura zuzentzeko 10 egun izango dira, udalak eskaera egiten duenetik aurrera.

Epea igaro ondoren eskaera zuzendu ez bada, artxibatu eta administrazio baliorik gabe geratuko da.

Eskaerarekin batera honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

I. eranskina

a) Eskatzailearen NANaren fotokopia. Adingabekoen kasuan, eskatzaileak jarduera egiten duen onuradun adingabearen aita, ama edo legezko tutorea izango da.

b) Adingabeen kasuan, familia liburuaren fotokopia, non jasotzen diren eskatzailearen eta adingabe onuradunaren datuak; bestela, eskatzaileari adingabearen legezko tutoretza ematen dion ebazpena.

c) Jarduera egiteagatik udalari edo mendeko erakundeari ordainketa egin izana egiaztatzen duen bankuaren jatorrizko agiria edo, horrelakorik izan ezean, dagokion ordainagiriaren kopia konpultsatua (ordainketa egina dagoela jaso behar du).

d) Jarduera zein zentrotan egin den, haren jatorrizko ziurtagiria, honakoak adierazten dituen: jardueraren hasiera eta amaiera data, emandako eta hartutako orduak guztira eta jardueraren kostua.

e) Zinpeko aitortpena, beste dirulaguntzarik eskatu den ala ez argitzen duena; halakorik eskatu bada, eskaeraren fotokopia konpultsatua. Eskaerari erantzun badiote, dirulaguntza onartzen (emandako zenbatekoa adierazi behar da) edo ukatzen duen ebazpenaren fotokopia konpultsatua. Ebazpena emateko zain egonez gero, horren berri eman behar da (II. eranskina).

f) Administrazio aginpidedunak egindako ziurtagiria, non jasotzen den eskatzaileak (adingabe onuradunaren gurasoak edo legezko tutoreak) egunean dituela Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunarekiko betebeharrak edo, bestela, eskatzaileak izenpetutako baimena, Aiarako Udalak bere ordezi ziurtagiria eska diezaion administrazio aginpidedunari, hain zuzen, jasotzen duena, eskatzaileari dagokienez, egunean dituela Foru Ogasuneko zergak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak.

g) Adierazpena, dirulaguntzaren eskatzailea eta onuraduna ez daudela azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren, dirulaguntzenaren, 13. artikulua jasotzen dituen onuradun izateko debekuen eraginpean (III. eranskina).

h) Jarduera egiten den herriko udalaren edo haren mendeko erakundearen ziurtagiria, non agertzen den zein den jarduera egiteagatik ordaindu beharreko tasa edo tarifa. Halaber, idatzita egongo da udalerrri horretan erroldatutakoek eta erroldatuta ez daudenek zein tarifa ordaindu behar duten.

i) Aiarako udalerrriaren errolda ziurtagiria, adierazten duena dirulaguntzaren onuraduna eta haren aita, ama edo legezko tutorea (onuraduna adingabea bada) eta gainerako kasuetan eskatzailea noiztik dauden bertan erroldatuta.

j) Hala badagokio, Lanbideren ziurtagiria, egiaztatzen duena eskatzailea langabezian dagoela (inskripzio aldia agertuko da).

Eskatzaile batek adingabe onuradun bi edo gehiago baditu bere kargura eta haiengatik dirulaguntza eskatu nahi badu, adingabe guztiak eskaera bakarrean bilduko ditu, eta artikulua honetan xedatzen den dokumentazioa erantsiko du, adingabe onuradun bakoitzari dagokiona.

Adingabe onuradunak diruz lagundu daitekeen jarduera bat baino gehiago egiten badu ere, eskaera bakarra aurkeztuko da, eta zein jarduera egiten dituen eta horietako bakoitzari buruzko agiriak erantsiko dira.

#### **Hamargarrena. Eskaerak aztertu eta ebaztea**

Eskaerak Aiarako Udaleko Kultura, Kirol eta Gazteria Saileko Informazio Batzordeak aztertu eta baloratuko ditu, teknikariaren txostenak lortu ondoren.

Egoki joz gero, aurkeztutako agiriei buruzko datuak edo azalpenak eska ditzake udalak, eskaerak hobeto aztertu edo baloratzeko.

Alkate lehendakariak izango du laguntzak ebazteko eskumena, Informazio Batzordearen txostena jaso ondoren.

Ebazpenaren bidez, laguntza onartu edo ukatu egingo da. Azken kasu horretan, arrazoiak ere azalduko dira. Ebazpenean eskatzailearen datuak, laguntzen zenbatekoa eta, hala badagokio, ezarri diren baldintzak adierazi behar dira.

Ebazpena eskatzaile guztiei helaraziko zaie.

Eskaerak ebatzi eta jakinarazteko, gehienez ere, bost hilabete izango dira, udaletxean eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera.

**Hamaikagarrena. Dirulaguntza ordaintzea**

Dirulaguntzaren zenbateko osoa (ehuneko 100) laguntza ematearen aldeko ebazpena onartzean ordainduko da.

**Hamabigarrena. Kontrola**

Dirulaguntza ematen duen organoak nahi dituen administrazio kontrolak eta ikuskatzeak egin ahal izango ditu aurkeztutako dokumentazioan adierazitako datuak benetakoak diren eta laguntza jasotzeko baldintzak betetzen diren ala ez egiaztatzeko. Onuradunak ikuskatze horretan laguntzeko betebeharra du, eskatutako datuak emanaz.

**Hamahirugarrena. Dirulaguntza galtzea**

Laguntzen onuradunek azpian zehaztutako baldintzaren bat betetzen ez badute, espedientea irekiko da jasotako kopuruak eta dirulaguntza ordaindu zenetik sortutako berandutze interesak itzultzeko.

Hona hemen zein kasutan irekiko den dirulaguntza galtzeko espedientea:

- a) Aurkeztutako eskaeran eta agirietan datu faltsuak jarri badira.
- b) Dirulaguntzaren zenbatekoak, bakarka edo beste laguntza publiko edo pribatu batzuekin batera, onuradunari diruz lagundu zaion jardueraren kostua gainditzen badu.
- c) Aiarako Udalari ez bazaio jakinarazi beste dirulaguntza publiko edo pribatu batzuk jaso direla, nahiz eta ordurako Aiarako Udalak likidazioa onartuta izan.
- d) Oro har, ordenantza honetan ezarritako betebeharretako bat betetzen ez bada.

**Hamalagarrena. Arau hausteak eta zehapenak**

Oinarri hauetan ezarritako baldintzak ez betetzeak emandako laguntza galtzea ekarriko du, eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak V. tituluan jasotako arau hauste erregimena eta dagozkion administrazio zehapenak aplikatuko dira.

Eta hori publiko egiten da, denek jakin dezaten.

Arespalditza, 2020ko martxoaren 23a


*Alkate-lehendakaria*

**GENTZA ALAMILLO UDAETA**



**Aiarako Udala**  
Ayuntamiento de Ayala

**AIARAKO UDALAK ESKAINTZEN EZ DITUEN MUSIKA ETA DANTZA JARDUERETARA JOATEKO ADINGABEENGATIK FAMILIEI DIRULAGUNTZARAKO ESKAERA**  
SOLICITUD DE SUBVENCIÓN A LAS FAMILIAS POR LA ASISTENCIA DE MENORES DE EDAD A ACTIVIDADES MUSICALES Y DANZA QUE NO SEAN OFRECIDOS POR EL AYUNTAMIENTO DE AYALA

 	<b>ESKATZAILEA / SOLICITANTE</b>				
	Izena eta abizenak / Nombre y apellidos		NAN / DNI		
	Helbidea / Domicilio		P. K. / C. P.	Herria / Localidad	Probintzia / Provincia
	E-posta / e-mail		Telefono zk. / Nº Teléfono	Sakelakoaren zk. / Nº móvil	
<b>BANKUKO DATUAK / DATOS BANCARIOS</b>					
Entitatearen izena / Nombre Entidad		Kontu korrontearen IBAN kodea / Código IBAN de la cuenta			

**ADIERAZTEN DU/ EXPONE:**

**1.- Bere seme-alaba edo tutoretzapeko adingabeak musika edo dantza ikastaro bat egin duela. Hauek dira datuak:** / Que su hijo/a o tutelado/a menor de edad ha realizado un curso de música o danza, de acuerdo con los siguientes datos:

\* **Dirulaguntza eskaeran jasotako jarduerak egin dituzten seme-alaba edo tutoretzapeko adingabeen kopurua** / Número de hijos/as o tutelados/as a su cargo que han realizado las actividades por las que solicita subvención

\* **Dirulaguntza eskaeran jasotako jardueren kopurua** / Número de Actividades por los que se solicita subvención

SEME-ALABEN HURRENKERA ZK. Nº HIJO/A	TUTORETZAPEKO ADINGABEAREN IZENA NOMBRE MENOR TUTELADO/A	JARDUERA (diziplina eta maila). Dirulaguntzaren xede diren guztiak. ACTIVIDAD (disciplina y curso) Todas por las que se solicita.

**JARDUERAREN - IKASTAROAREN DATUAK / DATOS DE LA ACTIVIDAD - CURSO**

IZENA ETA MAILA NOMBRE Y NIVEL	HASIERA EGUNA FECHA INICIO	AMAIERA EGUNA FECHA FIN	ZENBATEKOA IMPORTE	JARDUERA UDALERRIA MUNICIPIO EN QUE SE IMPARTE	EGITEN DEN

**2.- Betetzen dituela udalak eskaintzen ez dituen musika eta dantza jardueretara doazen adingabeengatik Aiarako Udalak familiei laguntzak ematea arautzen duen ordenantzan ezarritako baldintzak.** / Que cumple con los requisitos establecidos en la Ordenanza Reguladora de la concesión de Ayudas del Ayuntamiento de Aiara-Ayala a las familias, por la asistencia de los menores de edad a actividades musicales y danza, que no sean ofrecidos por el Ayuntamiento.

I.F.K. C.I.F. P0101100F  
 ✉ B°La Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



**Aiarako Udala**  
Ayuntamiento de Ayala

## I. ERANSKINA / ANEXO I

### ERANTSITAKO AGIRIAK: / SE ADJUNTA:

- a) **Jarduera egiten duen eskatzailearen NANaren fotokopia. Onuraduna adingabea bada, adingabe onuradunaren aita, ama edo legezko tutorearena.** / Fotocopia del DNI de la persona solicitante que realice la actividad, que en caso de beneficiario/a menor de edad, será el padre, madre o tutor/a legal del/de la menor beneficiario/a.
- b) **Onuraduna adingabea bada, eskatzailearen eta adingabe onuradunaren datuak jasotzen dituen familia-liburuaren fotokopia, edo bidezkoa bada, adingabearen legezko tutoretza ematen dion ebazpenarena.** / En caso de beneficiario/a menor de edad, fotocopia del Libro de Familia comprensiva de los datos de la persona solicitante y del/ de la menor beneficiario/a, ó en su caso, resolución que le otorgue la tutela legal del/ de la menor.
- c) **Udalari edo haren mendeko erakundeari jarduera egiteagatiko ordainketa egin izanaren bankuko frogagiria, edo halakorik ezean, dagokion ordainagiriaren kopia konpultsatua (ordaindua izan dela adierazi beharko du).** / Justificante bancario original de pago al Ayuntamiento u organismo dependiente por la realización de la actividad, o en su defecto, copia compulsada del recibo correspondiente (deberá expresar que ha sido abonado).
- d) **Jarduera egiten den zentroaren jatorrizko ziurtagiria. Honako ezaugarri hauek adierazi beharko ditu: jardueraren hasiera- eta amaiera-data, eskaintako eta bertaratutako ordu kopuru osoa eta jardueraren kostua.** / Certificado original del centro en el que se realiza la actividad que deberá indicar las siguientes características: fecha de inicio y fin de la actividad, número total de horas impartidas y asistidas y coste de la actividad.
- e) **Beste dirulaguntza eskaera batzuk egin izanari edo ez izanari buruzko zinpeko aitortpena, eta, bidezkoa bada, eskaeraren kopia konpultsatua. Eskaerak erantzunik izan badu, ebazpenaren kopia konpultsatua, emandako zenbatekoa edo baztertua izan dela adierazita. Adierazi, bidezkoa bada, ebazpenaren zain dagoen (II. eranskina).** / Declaración jurada sobre la existencia o no de otras peticiones de subvención y, en su caso, fotocopia compulsada de la petición. Si la petición ha recibido respuesta, fotocopia compulsada de la resolución indicando la cantidad concedida o si ha sido denegada. Indicar, en su caso, si se está a la espera de resolución (anexo II).
- f) **Administrazio eskudunak emandako ziurtagiria, eskatzaileak (edo adingabe onuradunaren gurasoak edo legezko tutoreak) Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren zergak ordainduta dituela ziurtatzen duena, edo, bidezkoa bada, eskatzaileak sinatutako baimena, bere izenean Aiarako Udalak administrazio eskudunari ziurtagiria eska diezaion, Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren zergak ordainduta dituela ziurtatzeko.** / Certificado emitido por la Administración competente acreditativo de estar al corriente de pago de los impuestos de la Hacienda Foral y con la Seguridad Social relativos a la persona solicitante (o progenitor/a tutor/a legal del/ de la menor beneficiario/a), o en su caso, autorización firmada por la persona solicitante para que en su representación el Ayuntamiento de Ayala solicite certificado de la Administración competente acreditativo de estar al corriente del pago de los impuestos de la Hacienda Foral y de los pagos con la Seguridad Social.
- g) **Onuraduna izateko Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluan aipatutako debekurik ez izatearen adierazpena, dirulaguntzaren eskatzaile eta onuradunari dagokionez (III. eranskina).** / Declaración de no estar incurso en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiario, señaladas en el artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones relativas al solicitante y beneficiario de la subvención (anexo III).
- h) **Jarduera egiten den udalerriko udalaren edo haren mendeko erakundearen ziurtagiria, jarduera egiteagatik ordaindu beharreko tasa edo tarifa jasotzen duena. Halaber, adierazi beharko da zein den udalerrian erroldatutako pertsonari dagokion tarifa, eta zein den udalerrri horretan erroldatuta ez dagoenari dagokiona.** / Certificado del Ayuntamiento u organismo de él dependiente del municipio en el que se realiza la actividad comprensivo de la tasa o tarifa que se debe abonar por la realización de dicha actividad indicando cual es la tarifa que corresponde a un empadronado de ese municipio y cual la que corresponde a un no empadronado de ese municipio.
- i) **Aiara udalerrian erroldatuta egotearen ziurtagiria. Agiri horretan jasoko da antzinasuna, bai onuradunarena eta gurasoarena edo legezko tutorearena (adingabea izanez gero) bai eskatzailearena gainerako kasuetan.** / Certificado de empadronamiento del municipio de Ayala donde conste la antigüedad, tanto de la persona beneficiaria y progenitor/a o tutor/a legal (en caso de menor de edad) como de la persona solicitante en los demás casos.
- j) **Bidezkoa bada, Lanbideren ziurtagiria, langabezia-egoera ziurtatzen duena (inskripzio-aldiari dagokion Lanbideren ziurtagiria).** / En su caso, certificado de Lanbide acreditativo de estar en situación de desempleo (certificado de Lanbide de periodo de inscripción).

Data / Fecha:



Sinadura Digitala (klik eransteke) / Firma Digital (Clic para adjuntar)

Eskuzko Izenpea / Firma Manual

**AIARAKO UDALEKO ALKATE-UDALBURU JAUNA.**  
SR. ALCALDE PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE AYALA.

I.F.K. C.I.F. P0101100F

✉ B°La Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



**Aiarako Udala**  
Ayuntamiento de Ayala

**AIARAKO UDALAK ESKAINTZEN EZ DITUEN MUSIKA ETA DANTZA JARDUERETARA JOATEKO  
ADINGABEENGATIK FAMILIEI DIRULAGUNTZARAKO ESKAERA**  
SOLICITUD DE SUBVENCIÓN A LAS FAMILIAS POR LA ASISTENCIA DE MENORES DE EDAD  
A ACTIVIDADES MUSICALES Y DANZA QUE NO SEAN OFRECIDOS POR EL AYUNTAMIENTO DE  
AYALA

## II. ERANSKINA / ANEXO II

D./D<sup>a</sup> [redacted] **jaunak/andreak,**  
**nire erantzukizunaren pean, honakoa ADIERAZTEN DUT:** / DECLARO, bajo mi  
responsabilidad que:

- EZ, ez dut eskatu beste dirulaguntzarik eskaera honetan jasotako jarduerarako.** / Que **NO** he solicitado ninguna otra subvención para la misma actividad que se solicita con esta petición.
- BAI, beste dirulaguntza batzuk eskatu ditut eskaera honetan jasotako jarduerarako (erantsi eskaera).** / Que **SI** he solicitado otras subvenciones para la misma actividad que se solicita en esta petición (adjuntar petición).

**Hala bada, datu hauek bete behar dira:** / En este caso, se deberá rellenar los siguientes datos:

- **Dirulaguntza erakunde honi eskatu zaio:**/ Organismo al que se solicita:


[redacted] **(Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, eta abar).** / (Diputación Foral, Gobierno Vasco, etc....).

- **Dirulaguntza onartu bada, adierazi zenbatekoa ( [redacted] euro) eta erantsi ebazpenaren fotokopia.** / Si se ha obtenido respuesta a la petición concediendo la subvención, indicar la cantidad: [redacted] euros. y adjuntar fotocopia de la resolución.

**Dirulaguntza ukatu bada, jarri X.** / Indicar si ha sido denegada.



**Data / Fecha:** [redacted]



Sinadura Digital (Klik eransteko) / Firma Digital (Clic para adjuntar)

\_\_\_\_\_  
Eskuzko Izenpea / Firma Manual

**AIARAKO UDALEKO ALKATE-UDALBURU JAUNA.**  
SR. ALCALDE PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE AYALA.

I.F.K. C.I.F. P0101100F  
✉ B<sup>o</sup>La Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus





**Aiarako Udala**  
Ayuntamiento de Ayala

**AIARAKO UDALAK ESKAINTZEN EZ DITUEN MUSIKA ETA DANTZA JARDUERETARA JOATEKO  
ADINGABEENGATIK FAMILIEI DIRULAGUNTZARAKO ESKAERA**  
SOLICITUD DE SUBVENCIÓN A LAS FAMILIAS POR LA ASISTENCIA DE MENORES DE EDAD  
A ACTIVIDADES MUSICALES Y DANZA QUE NO SEAN OFRECIDOS POR EL AYUNTAMIENTO DE  
AYALA

### III. ERANSKINA / ANEXO III

D./D<sup>a</sup>. [REDACTED]

jaunak/andreak nire erantzukizunaren pean **ADIERAZTEN DUT ez nagoela azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren, dirulaguntzenaren, 13. artikulua jasotzen dituen onura - dun izateko debekuen eraginpean.** / DECLARO, bajo mi responsabilidad que no estoy incurso en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de beneficiario de una subvención pública, recogidas en el artículo 13 de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre General de Subvenciones.



Data / Fecha: [REDACTED]



Sinadura Digitala (klik eransteko) / Firma Digital (Clic para adjuntar)

\_\_\_\_\_  
Eskuzko Izenpea / Firma Manual

**AIARAKO UDALEKO ALKATE-UDALBURU JAUNA.**  
SR. ALCALDE PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE AYALA.

I.F.K. C.I.F. P0101100F  
✉ B<sup>o</sup>La Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



**Aiarako Udala**  
Ayuntamiento de Ayala

**AIARAKO UDALAK ESKAINTZEN EZ DITUEN MUSIKA ETA DANTZA JARDUERETARA JOATEKO  
ADINGABEENGATIK FAMILIEI DIRULAGUNTZARAKO ESKAERA**  
SOLICITUD DE SUBVENCIÓN A LAS FAMILIAS POR LA ASISTENCIA DE MENORES DE EDAD  
A ACTIVIDADES MUSICALES Y DANZA QUE NO SEAN OFRECIDOS POR EL AYUNTAMIENTO DE  
AYALA

#### IV. ERANSKINA / ANEXO IV



ESKATZAILEA / SOLICITANTE			
<b>Izena eta abizenak</b> / Nombre y apellidos	<b>NAN / DNI</b>		
<b>Helbidea</b> / Domicilio	<b>P. K. / C. P.</b>	<b>Herria</b> / Localidad	<b>Probintzia</b> / Provincia
<b>E-posta</b> / e-mail	<b>Telefono zk. / N° Teléfono</b>	<b>Sakelakoaren zk. / N° móvil</b>	

**BAIMENA EMATEN DIOT:**

**AIARAKO UDALARI, nire izenean, eska  
dezan administrazio eskudunak  
emandako agiria, Foru Aldundiaren  
zergak eta Gizarte Segurantzako  
Diruzaintza Nagusiaren ordainketak  
egunean ditudala egiaztatzen duena.**

**AUTORIZO:**

AL AYUNTAMIENTO DE AYALA a que  
solicite, en mi nombre, certificado de la  
Administración competente acreditativo de  
estar al corriente del pago de los impuestos  
con la Hacienda Foral y de los pagos con la  
Tesorería General de la Seguridad Social.

**Data / Fecha:**




Sinadura Digitala (klik eransteke) / Firma Digital (Clic para adjuntar)

Eskuzko Izenpea / Firma Manual

**AIARAKO UDALEKO ALKATE-UDALBURU JAUNA.**  
SR. ALCALDE PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE AYALA.

I.F.K. C.I.F. P0101100F  
✉ B°La Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus